



Aretxabaletako
Udala



2026IDLH0003

Hitzarmena

Aretxabaletako Udala eta LEKAIXOKA BERTSO ESKOLA Elkartearen artekoa

Bildurik:

Alde batetik, MENDIARATX, URIBEETXEBARRIA, MIKEL jauna/andrea, NAN 72455914A duena, adinez nagusia, LEKAIXOKA BERTSO ESKOLA Elkartearen izenean (IFK zkb. G75109637) eta ordezkartzan.

Eta bestetik, Garikoitz Iturbe Etxebarria jauna, NAN 72457054Q duena, Aretxabaletako Udaleko Alkate- Lehendakaria, Udalaren izenean (IFK zkb: P2001400G) eta ordezkari duena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta zera

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta/edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 272016 Legearen 17. artikulua jarraituz, Udalaren eskumena(k) da/dira:

- Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izatea.
- Udalerrian euskaraz bizitzeko dauden aukerak areagotu nahirik, hainbat esparrutan euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura bultzatuko duten ekintzak antolatze laguntzak ematea

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria Mikel Mendaratx Uribeetxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b



BIGARRENA: Lekaixoka Bertso Eskolak honako xedea du:

- Euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura bultzatuko duten ekintzak antolatzea.
- Gure hizkera, jaso, erabili, aztertu eta indartuz euskara bera sendotu eta aberastea.
- Transmisio naturala eta kulturala bermatzea. Belaunaldi berrien lekukoa hartzea, transmisioa ziurtatzea eta erabilera esparruak finkatzea eta zabaltzea.

HIRUGARRENA: 2026ko martxoaren 17an aurkeztutako idatziaren bidez, Lekaixoka Bertso Eskolak euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura bultzatzeko dirulaguntza eskatu dio Aretxabaletako Udalari. Eskabidearekin batera diruz lagundu nahi diren jardueri buruzko memoria aurkeztu du.

LAUGARRENA: Lekaixoka Bertso Eskolak ez dauka debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

BOSGARRENA: Aretxabaletako Udalak onartuta duen dirulaguntzen 2025-2027 eperako plan estrategikoan, besteak beste, honako hau jasotzen da:

Dirulaguntzaren izena: Aretxabaletako Udala eta LEKAIXOKA BERTSO ESKOLAREN arteko hitzarmena.

Xedea: Euskaren transmisio naturala eta kulturala bermatzea

Udalak zer lortu nahi duen: Euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura bultzatzea.

Norentzat: Lekaixoka Bertso Eskolarentzat

Ematekoaren modalitatea: Izendun dirulaguntza zuzena.

Zenbatekoa: 6.000 €

Aurrekontu aplikazioa: "Lekaixokari dirulaguntza" 1 0510 481 335 00 05 2026 (1813)

Hori guztia dela eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria	Mikel Mendaratx Uribeetxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b	

KLAUSULAK

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Alde bien arteko hitzarmen honen helburua da 2026. urtean Lekaixoka Bertso Eskolak egiten duen lana diruz laguntzea euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura bultzatzeko.

BIGARRENA: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo geratzen da. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA: Lekaixoka Bertso Eskolaren betebeharrak.

Lekaixoka Bertso Eskolak 2026. urtean zehar antolatuko dituen ekintza guztietan Aretxabaletako Udala babesle gisa azalduko da. Horrenbestez, argitaratzen dituen kartel, euskarri eta antzekoetan Udalaren logoa agertuko da, Udal honek diruz laguntzen duela adieraziz.

Dirulaguntzen kudeaketan Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartuko ditu, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaion informazio guztia emango du.

Jasotako diruaren erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeelako.

Lekaixoka Bertso Eskolak jasoko duen dirulaguntza bakar bakarrik dirulaguntzaren xederako erabiliko du.

Dirulaguntza zurituko du, eta ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu, dirulaguntza itzuli beharko du.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria Mikel Mendiaratz Uribeetxebarria
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b



LAUGARRENA: Aretxabaletako Udalaren betebeharrak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta Aretxabaletako Udalak 2026. urterako onartutako udal aurrekontuekin bat etorriz, Lekaixoka Bertso Eskolari 6.000 euroko dirulaguntza ematen zaio "Lekaixokari dirulaguntza" 1 0510 481 335 00 05 2026 (1813) partidaren kontura. Dirulaguntza hau hitzarmena izenpetu ondoren emango da, betiere Udalak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua dioena betez, Udalak datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta egingo die Elkarateak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, Elkarateak ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.

BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria	Mikel Mendaratx Uribeetxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b	



f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da tokiko, eskualdeko, nazioko, nazioz gaindiko eta nazioarteko administrazioetatik jasotako beste edozein laguntzarekin edo dirulaguntzarekin. Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hala gertatuko balitz, elkarteak dirua itzuli egin beharko luke dagokion proportzioan.

ZAZPIGARRENA: Genero-berdintasuna.

Diruz lagundutako proiektua gauzatzera koan, Lekaixoka Bertso Eskolak ezingo du hizkera sexistarik erabili dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan).

Lekaixoka Bertso Eskolak ezingo du inolako dirulaguntzarik jaso honako kasuetan.

1. Bere xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun- printzipioa urratzen badu.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatua izan bada sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratzeagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez baditu.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, emakume edo emakume-taldeen bereizkeria eragiten duten jarduerak, izan sexuagatik izan diskriminazio anitzeko faktoreengatik, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna,

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria	Mikel Mendaratx Uribeetxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b	



adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

ZORTZIGARRENA: Jarraipena batzordea

Hitzarmenaren jarraipena egiteko alde bien artean osatutako jarraipen batzordea eratuko da eta alde bakoitzak kide bana izendatuko du. Batzorde hau alde bietako edozeinek eskatzerakoan batzartuko da hitzarmena betetzeko egon daitezkeen desadostasunak konpontzeko.

BEDERATZIGARRENA: Dirulaguntzaren zuriketa.

Lekaixoka Bertso Eskolak jasotako funtsen erabilera egokia zuritzeko konpromisoa hartzen du.

Zuriketa hori, nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan eta lege honen Erregelamenduaren 72. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio, eta 2027ko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da Aretxabaletako Udaletxean, erregistro elektronikoko bidez, eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Jardueren azalpen memoriaz gain, egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

- a) Jardueren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.
- b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan sartuta daudenak, eta hala badagokio, horien ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria	Mikel Mendaratx Uribeetxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b	



HAMARGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Azken sinaduraren egunetik 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean hitzarmen hau. Berau aldatzeko alderdien aho bateko adostasuna beharko da.

HAMAIKAGARRENA: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa betetzeko, aplika daitekeen guztian.

HAMABIGARRENA: Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.
- b) Alde bien aho bateko akordioa.
- c) Alde bietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoia gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria	Mikel Mendaratx Uribeetxebarria
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b	



d) Hitzarmenaren balio gabetzea deklaratzeko duen erabaki judiziala.

HAMAHIRUGARRENA: Jurisdikzioa.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMALAU GARRENA: Gardentasun ataria.

Hitzarmena Udalaren gardentasun atarian argitaratuko da.

Eta jasota gera dadin, adostasuna adierazteko, aldeek elektronikoki izenpetzen dute hitzarmen hau, eta azken izenpetzailearen data hartzen da dokumentu hau formalizatzeko datatzat.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria	Mikel Mendaratx Uribeetxebarria
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQBY7L.0q2b	